

## DESKRIBAPENA

**Food truck** (ingelesez "janari kamioi") kalean janaria zerbitzatzeko moldatuta dagoen garraibide bati erreferentzia egiteko erabiltzen den terminoa da. Oro har, janari azkarrari lotuta egoten dira, baina 2009tik aurrera janari landuagoetara pasa zen. Gaur egun, plater gourmetak eskaintzen dituzten kamioiak ere ospetsuak egin dira. Gure proiektua eco-friendly, zeliakoa, beganoa eta osasuntsua izatera bideratuta dago, betiere, produktu lokalen erabilera indartuz eta km 0 elikagaien kontsumoa sustatuz. Kamioi hauek mugikorrek izaten dira; hau da, eskaria dagoen tokietan egiten dute lan eta lan modu hau aurrera eramatea da gure helburua.

Proiektu honen bitartez, elikatzeko modua guztiz aldatu nahi dugu, produktu osasuntsuetan oinarritutako elikadura bat hedatuz. Hori gutxi balitz, festa, jai eta ekitaldi desberdinen inguruan egotea eta bertan gure produktuak saltzea gustatuko litzaiguke festetan jaki osasuntsuak jan ditzakegulako ere. Azkenik, gure webgune eta sare sozialetan gure momentuko kokapena zehaztu eta eguneratuko dugu momentu oro.

